

TXOSTENA, AURREKONTU ZUZENDARITZARENA, AUKERAK - AGENCIA VASCA DE REINSECCIÓN SOCIAL / GIZARATERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.

AUKERAK – Agencia Vasca de Reinsección Social / Gizarateratzearen Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa sortzeko legearen aurreproiektuaren artikulua bakarraren 6. puntuan honako hau ezartzen da:

AUKERAKek baliabide ekonomiko hauek ditu bere helburuak betetzeko:

- a) Entearen hasierako zuzkidura, eta entearen gizarte-funtseko gehikuntzak, halakorik bada.
- b) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ezartzen diren diru-izendapenak.
- c) Dirulaguntzak, beste administrazio publiko batzuen ekarpenak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak, bere alde halakorik ematen bada.
- d) Bere ondarearen barruko ondasun eta eskubideetatik eratorritako diru-sarrerak, eta bere jarduerak gauzatzetik eratorritako ohiko eta ezohiko diru-sarrerak.
- e) Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak AUKERAK sortzeko legearen aurreproiektuari buruz egindako memoria ekonomikoan Aukerak 2021eko eta 2022ko ekitaldietako jardunaren ustiapenaren eta kapitalaren laburpen-taula hau dago:

2021	
USTIAPEN AURREKONTUA	
GASTUAK	DIRU-SARRERAK
III. LANGILEEN GASTUAK: 246.055,51 VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK: 582.341,00 VII. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAK: 20.000,00	VI. JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZAK: 848.396,51
Ustiapenaren gastuak, guztira: 848.396,51	Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira: 848.396,51
KAPITAL-AURREKONTUA	
INBERTSIOAK	FINANTZAKETA
II. INB. UKIEZ., MAT. ETA BESTELAKOETAN: 129.500,00	II. KAPITAL-TRANSF.: 129.500,00
Inbertsioak, guztira: 129.500,00	Kapitalaren diru-sarrerak, guztira: 129.500,00

2022	
USTIAPEN AURREKONTUA	
GASTUAK	DIRU-SARRERAK
III. LANGILEEN GASTUAK: 3.889.845,45 VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK: 5.390.866,00 VII. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAK: 100.000,00	III. SALMENTEN DIRU-SARRERAK: 6.313.280,60 VI. JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZAK: 3.067.430,85
Ustiapenaren gastuak, guztira: 9.380.711,45	Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira: 9.380.711,45
KAPITAL-AURREKONTUA	
INBERTSIOAK	FINANTZAKETA
INB. UKIEZ., MAT. ETA BESTELAKOETAN: 2.135.113,00	II. KAPITAL-TRANSF.: 2.135.113,00
Inbertsioak, guztira: 2.135.113,00	Diru-sarr., guztira: 2.135.113,00

2021eko ekitaldirako aurreikuspen honetan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak ente berriari egingo dizkion bi ekarpen ageri dira; bata inbertsioetarako, 129.500 euro, eta bestea ustiapen-gastuetarako, 848.396 euro.

Ente berriarentzako ekarpenak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2021eko indarreko aurrekontuen kargura finantzatu dira. Gainera, beharrezkoa izanez gero, entea finantzatzeko behar diren aldaketak egingo dira aurrekontuetan.

Horretarako, behin espetxeen arloko eskumenak eskualdatzeko errege dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoan, dekretu bat egingo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuari gehitzeko AUKERAK zuzenbide pribatuko ente publiko berriaren 2021eko ekitaldia amaitu arteko jarduketak finantzatzeko behar diren gastu-partidak zuzkitzeko, egingo zaion transferentziaren partida barne.

2021. urtean sortzen bada, AUKERAK ez da hasiko jardunean aurrekontu-ekitaldiarekin batera; horregatik, Jaurlaritzak onartu beharko ditu entearen 2021eko aurrekontuak.

2022ko ekitaldiko kopuruak proposamenak dira, eta EAeko 2022ko aurrekontu orokorrak prestatzeko eta gero Eusko Legebiltzarrean onartzeko lantzen diren aurrekontu-agertokiei egokitu beharko zaizkie.

Azaldutako beharrezana aintzat harturik, Aurrekontu Zuzendaritzak aldeko txostena ematen dio AUKERAK – Agencia Vasca de Reinserción Social / Gizarteratzearen Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa sortzeari, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikiko baitzaio.

Txosten hau egiteko, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak 14.1.d artikuluan Aurrekontu Zuzendaritzari ematen dizkion eskumenak erabili dira.

Gasteizen, 2021eko uztailaren 6an.

Sin.: Josu I. Garay Ibáñez de Elejalde
AURREKONTUEN ZUZENDARIA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA